



AURRETIAZKO JENDAURREKO ENTZUNALDIA, EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PROZESUA ARAUTZEKO DEKRETU BERRIA ONARTZEKO PROIEKTUARI BURUZKOA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskal Sektorre Publikoko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko dekretu berria onartzeko proiektua izapidetzea aurreikusten du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoari jarraiki, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, entzunaldi publikoa bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez; horren bidez jasoko da etorkizuneko arauak uki ditzakeen herritarrek eta erakundeek zer iritzi duten puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak
- b) Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez erregulatzailerik

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2017ko abenduaren 12ko batzarrean, onartu egin zuen xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartzen dituen erabakia, zeinaren arabera zehaztu zen xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak, aurretiazko kontsultaren izapidea betetzeko, iragarkia jarri ahal izango duela Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan.

Beraz, azaldutakoa betetze aldera, eta lege-aurreproiektuaren izapidetzarekin hasi baino lehen, honen bidez herritarrei dei egiten diegu Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko iragarki-oholean argitaratuko den eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren datan.

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria

Joseba Lozano santos

(Izenpe elektronikoa)





AURRETIAZKO JENDAURREKO ENTZUNALDIA, EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PROZESUA ARAUTZEKO DEKRETU BERRIA ONARTZEKO PROIEKTUARI BURUZKOA

<p>EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</p>	<p>Euskararen ezagutzan erronka berriak datoz, kontuan hartzen badugu EAeko gazterian dagoen ezagutza % 80tik gorakoa dela eta horiek oraingo administrazioko langileak ordezkatzera deituak daudela. Funtzionarioen euskararen ezagutza kontuan hartuta, normalizazioaren bigarren urratsa eman nahi da, eta lan jarduketan euskaraz eta gaztelaniaz lan egingo duen administrazioa lortzeko bidean jarri.</p>
<p>ARAU ONESTEA BEHARREZKOA ETA EGOKIA DEN</p>	<p>Dekretu bakar batean batu nahi dira Euskal Sektore Publiko osorako normalizazio arau orokor amankomunak; erakunde bakoitzaren autonomia mantenduz, planifikazio tresnen bitartez bakoitzaren berezitasunek isla eduki dezaten beren normalizazio prozesuan.</p>
<p>ARAUAREN HELBURUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erakundeen autonomia eta berezitasunak aintzat hartuz, normalizazio arau orokor amankomunak ezarri Euskal Sektore Publikoan. • Hizkuntza Planifikazioaren tresnen arloa garatu. • Hizkuntza eskakizunen izendapena Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren mailetara egokitu. • Ezagutzatik erabilerara jauzia egiteko bitartekoak garatu. • Egungo araudian antzemandako hutsuneak konpontze aldera hobekuntza teknikoak txertatu.
<p>IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ ERREGULATZAILEAK</p>	<p>Aurreko idatz-zatietan azaldutako inguruabarrak direla-eta, nahitaezkoa da dekretu berria izapidetzea, ezinezkoa baita bestelako konponbideak bilatzea egun indarrean dauden dekretuak aldatu edota ordezkatzeko.</p>